

- DIRU ITURRIAK

Bezeroen segmentu bakoitzarekin enpresak eskuratzen duen eskudirua. Bertan, diru-sarrera eta gastuen arteko kenketaren emaitza da irabazia.

Merkatu finkoa da, produktuen prezioa ez da aldatzen merkatu egoeraren arabera, prezioak mantenduko ditugu. Hortaz, produktu guztiak ez dute prezio bera izango, aldatu egingo da produktuen kalitate eta kantitatearen arabera. Adibidez, ez du prezio bera izango mugikor zorro bat erosteak edo giltzatak bat erosteak. Batetik, chipak osagarrietan txertatuta salduko ditugu eta bestetik, chip solteak salduko ditugu bakoitzak nahi duen lekuan jartzeko.

Online denda denez, gure bezeroak interneten bidez ordaindu beharko dute: paypal, visa edo transferentzia baten bidez. Plataforman kodea sartuta automatikoki ordainduko dute. Deskontu kodeak izanez gero, ordaintzeko orduan kodeak sartzeko gai izango dira.

